

Paula Olaz musika konpositorea

«Soinu-bandaren helburua ez da eszenari lagun egitea, eszenari beste zerbait gehitzea baizik»

Bizitza zer den, hara non elkartu diren mahai baten bueltan orain hamar urte eskas itzulpengintza ikasi zuten bi. Bizitza zer den, puntako soinu-bandak egiten dabil gaur egun orain hamar urte eskas itzulpengintza ikasi zuenetako bat: Paula Olaz. Eta hori dute elkartzeko aitzakia bi ikasle ohiek: Olazek solaskideari kontatu dizkio zineman aditzen dugun musikaren nondik norakoak.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hainbat arlotako ikasketak egin dituzu eta hainbat tokitan bizi izan zara. Zeren bila ibili zara?

Ez dakit... Oso kurioa naiz, orokorrean. Itzulpengintza ikasi nuen eta han eta hemen ibili naiz, zeren, gustuko dut beste kultura batean egotea, pertsonak ezagutzea eta nire nortasuna horretara egokitzea. Gero beste gauza asko gustatu zaizkit eta ikasi ditut (medikuntza alternatiboa, musika...). Musika beti izan da hobby moduko bat, beti eutsi diot. Esango nuke komunikatzeko era guztiek ematen didatela arreta, asko gainera.

Gaur egun ikasketak hain espezializatuak direnez, deigarria egin zait halako aniztasuna.

Polifazetikoek asko sufritzen dute gaur egun. Badago presio hori, badirudi bizitzan gauza bakarra egin behar duzula, beste aukerarik ez balego bezala, eta ez baduzu hala egiten erotuta zaude, asko

ikasi baduzu ere. Ni saiatu naiz maila akademikoan sakontzen gauzetan, baina egia da ezin dudala nire jakin-mina ezabatu.

Oraintxe esan duzu komunikazioa interesatzen zaizula. Elkarrizketa batean irakurri nizun horregatik ikasi zenuela itzulpengintza, baina gerora, hizkuntzak eskas gertatu eta musikari heldu zeniola. Zer komunikazio-muga aurkitu zenien, bada, hizkuntzei?

Hitzak oso potenteak dira, nahiko bortitzak ere bai. Beti eragiten digu asko zer esaten duten besteek guri buruz eta norbaitekin zaudenean hark zer esaten dizun. Eta musikarekin berriz, ez dakit nola, baina iruditzen zait dena poetizatzen dela pixka bat. Honekin ez dut esan nahi hizkuntzak menderatu ditudanik eta orain beste maila batean nagoenik, ez naiz hain handiustea. Bere garaian asko idatzi nuen, esan nituen esan beharrekoak, eta jada pasa zait horrela ko-

Paula Olaz

1989, Iruñea

Itzulpengintza eta interpretazioa ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ondoren, Zinema, telebista eta bideo-jokoetako soinu-banden masterra, Berklee College of Music unibertsitatean. Horrez gainera, zeinuen hizkuntza eta neurozientziako masterrak egin ditu. ULM (Universal Love Movement) (Maitasun Batuaren aldeko Mugimendua) mugimendua sortu zuen bi kideekin, musikaren bitartez munduan eragiteko asmoz. Gaur egun, soinu-bandak konposatzen ditu. Azkenia, *Heriotza bikoitza (Doble Malta)* antzezlanaren girotzeaz arduratu da. Badu webgune bat (paulaolaz.com), eta han topa dezakezue bere obrari buruzko informazio gehiago, baita entzun ere.



munikatzeko momentua. Orain, musikarekin deskubritu dut beste lengoaia bat. Hala ateratzen zait, ez dut aukeratu bestea txiki geratu zaidalako.

Musika ez da hizkuntza bezain unibokoa?

Hitzez badute hiztegi bat, eta hiztegiak esaten dizu hitz honek hau esan nahi duela. Gero, eraldatzen ditugu, baina normalean badute oinarri bat. Eta musikan, aldiz, nork esan dezake sol notak esanahi zehatz bat duela? Hori esaten duena flipatu bat da. Musika ezin duzu eskuen artean hartu, ezin duzu kontrolatu, ez duzulako zuk asmatu.

Edonola ere (hizkuntza) interprete jardun zinen Ginebran, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluan.

Oso esperientzia polita izan zen. Gobernu kanpoko erakunde batekin aritu nintzen: ILGA Gay eta Lesbianen Nazioarteko Elkartearekin. Polita izan zen, zeren, sentitu nuen zerbait praktikoa egin nezakeela itzulpengintzarekin; beti izan dut arantza hori, itzultzea ez zait asko gustatzen, baina ikusten badut nire ekintzek eragina dutela, eta gainera zenbait egoera salatu ditzakedala... Hori gustatu zitzaidan. Iruditu zitzaidan zerbait inportantea egiten ari nintzela hor egonez eta jendearekin hitz eginez.

Nolatan erabaki zenuen azkenean musikari buru-belarri heltzea?

Halako krisi existentzial bat eduki nuen: oso gaizki pasatu nuen, ez nuen nire lekua aurkitzen, ez nekien zer egin nahi nuen bizitzan. Amarekin hitz egin nuen eta esan zidan isiltasunean pentsatu behar nuela (nahiko meditatiboa naiz), eta pentsatu behar nuela ea zer nuen gustuko txikia nintzenean, atzera jo behar nuela eta ikusi ea zer atera nezakeen hortik. Izan ere, txikitan oraindik ez dago filtrorik, eta barruan daukazuna ateratzen da, zure izaera. Azkenean konturatu nintzen txikitan txistuta aritzen nintzela beti, eta pianoa jotzen, eta ez nituela partiturak irakurri nahi izaten. Kontserbatorioan nenbilenean ere, beti egiten nituen nire konposizioak, eta erabaki nuen saiatu behar nuela nire ametsa betetzen: Berklee College of Music unibertsitatera aurkeztu nintzen. Eta hartu egin ninduten. Musika modernoko unibertsitate onena omen da. Bostonen dago, eta gero Valentzian ipini zituzten masterrak. 30 lagun bakarrik

hartzen dituzte. Mundu guztiko jendea aurkezten da, eta esan nuen: bada hau-tatu banaute, zerbaitegatik izango da.

Urtebetez egon naiz Valentzian, eta sekulako bultzada izan da. Orduz geroztik harrituta nabil, zeren gauzak ez ditut inoiz hain bideratuak izan; adibidez, hasi nintzen doktoretza bat egiten medikuntza alternatiboari buruz, eta oso zaila izan zen medikuekin-eta

ko horretara, eta bakarrik ikusten dute beste alternatiba bat: irakaskuntza.

Kontserbatorioan ez da musika ematen gozatzeko bide bezala edo esperimentatzeko bide bezala. Eta, zer, musika landu behar dugu soilik besteen piezak jotzeko kontzertu batean? Musika ez da hori bakarrik, musika artea da, eta arte horren bitartez erlazio bat garatzen duzu, eta pixka bat sustatuko balute la-



hitz egitea. Gauza asko egin ditut bizitzan kolpeka, oztopoei aurre eginez eta oraingoan aldiz, Berkleen ikasi ondoren erraz etorri da dena. Oso esker oneko nago.

Kontserbatorioek ez dute sorkuntza bultzatzen?

Kontserbatorioek interpreteak baino ez dituzte nahi, eliteko interpreteak gainera, eta horrek esan nahi du onena izan behar duzula, ez ehunen artean, baizik eta bost milaren artean. Kontserbatorioetan musika bideratzen dute kontzertuetara bakarrik: izan behar duzu kontzertu-jotzailea, eta onena gainera. Baina horrek frustrazio handiak sortzen ditu, zeren badaude musikari batzuk zerbait berezia daukatenak, baina beste batzuk, saiatu arren, ez dira inoiz iritsi-

saitasun hori, esango balute “egon lasai, ez duzu zertan interprete izan, gozatu musikarekin, zeren inork ez dauka egia absolutua”... Baina kontrakoa egiten dute. Badirudi kontzertuetako musika intelektuala dela balio duen bakarra, eta hor ez bazaude ez zarela inor, baina ez da hala, musika ez da gauza pribatua.

Soinu-bandak konposatzen dituzu. Nola hasi zinen horretan?

Oso mundu polita da, baina nahiko itxia. Berkleen ikastea bultzada itzela izan zen, zeren seriotasun bat ematen dizu. Ez da master teoriko normal bat, amerikar erara egiten dute, eta hori da benetan lanean aritzea bezala. Irakasleek betetzen zuten zine-zuzendariaren rola, ematen zizuten sekuentzia bat musika jar zeniezaion. Orduan egiten zenuen

zure proposamena eta haiekin lantzen zenuen. Eta hartzen zenituen atal guztiak: konposatu, orkestratu (orkestra batekin ari bazinen), estudioetan nahasketak egin... den-dena, gero autonomia izateko. Ni egunero egoten nintzen laborategian goizeko bederatzietatik gaueko ordu biak arte, asteburuak barne. Izugarria zen. Hor ikasten baduzu oso prestatuta ateratzen zara.

Eta nolakoa da zure sortze-prozesua?

Normalean zuzendariarekin egoten zara, eta berarekin ikusten duzu pelikula muntatua, lehengai gordina. Berak bere hitzekin esplikatzan dizu zer-nolako soinua jarri nahi liokeen, horregatik esan ohi dut psikologoaren papera betetzen dugula hein batean. Esaten dizute nahi dutela zerbait sakona... baina zer da musika sakona? Askok ez dakite

gauzak egitea, ez zara gustura geratzen, zeren eskatzen ari zaizkizuna eta zuk ikusten duzuna gauza ezberdinak dira, baina egin behar duzu... Azkenean lan bat da, eta batzuetan utzi behar duzu egoa albo batera, eta bestearen obra denez, lan egiteko bideak bilatu, bat etorri ez arren. Pelikula handiei buruz ari naiz: pelikula horietan presio handia dago, diru asko, urtetako lana... Zuzendariak



Zer egiten duen konpositore batek 'benetan'

Aurreiritzi orokorrean kontrara, konpositoreek teknologia dute baliabide nagusi: "Badakizu zer den konposatzea? Pantaila baten aurrean aritzen gara, teklatu berezi batekin...". Aurreiritzia ezin askatu, teknologia bidez sortutako hori orkestra batekin grabatzen ote den galdetu du kazetariak. Erantzuna: "Bai... horretarako aurrekonturik badago".

Zer eman behar dio soinuak ikus-entzu-nezko piezari?

Askok esaten dute musikak lagundu egin behar duela eszena, eta hori ez zait asko gustatzen, musikaren helburua ez da eszenari lagun egitea eta eszenan akats bat baldin badago musikak ateratzea atakatik (eta hori askotan gertatzen da). Niretzat, musikaren zeregina da sentimenduak adierazteko beste era bat ematea. Konpositoreek, normalean, musikarik gabe jasotzen dute materiala: baduzu eszena bat eta, pertsona zaren aldetik, gauzak sentitzen dituzu eszena hori ikustean, eta zure lana da hori musikara itzultzea. Seguru aski zuk sentitu duzuna eta zuzendariak sentitu duena ez da justu gauza bera izango, baina nire ustez horixe da politena: zerbait ezberdina ematea eszenari.

asko musikaren inguruan, baina gizaki guztiok ditugu sentipenak, beraz zuzendariarekin egoten zara eta saiatzen zara hura ulertzen. Gero baduzu zure ulerkerara, pelikula osoa ikusi eta saiatzen zara bilatzen halako kolore edo izaera musikal bat, eta horrekin hasten zara lanean. Hasten zara konposatzen, probak egiten dituzu, bidaltzen dizkiozu zuzendariari, hark mila buelta ematen dizkio, eta bera denez zuzendaria, bada... Zuzendaria ulertzen saiatzeak motibatzen nau, desafio ederra iruditzen zait.

Langintza zaila al da?

Zuzendari batzuk gustatzen zaizkizu eta ondo moldatzen zara, baina beste batzuek bestelako modu batean ulertzen dute musika, eta egia da batzuetan tokatzen zaizula egin nahi ez dituzun

nahi dute dena ondo ateratzea, eta zuk horretan lagundu behar duzu.

Pascal Gaigne konpositorearen taldean aritu zara Handia, Errementari eta Dantzafilmetan. Zer moduz?

Izugarritzko zortea izan dut Pascalekin lan egiteko aukera dudalako. Zinemaren munduan askotan ikusten duzu garrantzitsuena zera dela: zure izaera eta komunikatzeko ahalmena. Eta uste dut horregatik moldatzen naizela hain ondo Pascalekin. Musikaren aldetik asko gustatzen zait berak egiten duena, oso delikatu da. Badu mundu bat oso-oso polita, eta musika ulertzeko modu jakin bat: ez da konpositore *mainstream* bat inondik ere. Gustatzen zait zeren, oso artisaua da, berak ere hala esaten du, ez ditu gauzak egiten inor inpresionatze-

ko, egiten duena egiteko beharra sentitzen duelako baizik, ez dauka bizitzeko beste erarik. Eta izaera hori eta lasaitasun hori ez da maiz topatzen zinemaren munduan, nik behintzat horren falta nabaritzen dut: konpositore guztiak oso estresatuta daude, azkar egin behar dute lan, eta gainera kreatiboak izan. Pascalen kasuan, berriz, ikusi dut beldu zineman lan egiteko beste era bat, eta horregatik sentitzen naiz hain zorioneko.

Bideo-jokoetarako ere konposatu duzu musikarik: alde handia al dago zinemaren eta bien artean?

Bai, oso handia. Pelikula bat egiteko behar dira 2-3 urte, bideo-joko bat egiteko, berriz, 7-10. Pentsa, pelikula batean, ordu bat musika egin behar duzu, eta bideo-jokoetan, berriz, 10 ordu... Dena interaktiboa da, hainbat gauza prestatu behar duzu, jokalaria egiten duenaren arabera bata ala bestea sartzeko. Denak egon behar du oso ondo pentsatuta, bideo-jokoetako musika ez baita lineala, ez du hasiera bat eta bukaera bat.

Gustuko al duzu mundu hori?

Bai, gainera horretan dabilen jendea itzela da. Zinemaren munduak badu *glamour* bat, publikoa denez, eta horretan lan egiteak giro horretan sartzen zaitu. Baina bideo-jokoetan lan egiten dutenak programatzaileak dira, oso jende normala, eta oso erraza izaten da haiekin lan egitea. Gainera, normalean ez dakitenez hainbeste musikari buruz eta ez daudenez hainbeste eredu, pixka bat irekiagoa da. Zineman, batzuek esaten dizute: asko gustatzen zait Ennio Morriconeren soinu-banda, egin halako

» “Zinemaren munduak badu *glamour* bat, bideo-jokoetan lan egiten duena berriz, oso jende normala da”



zerbait. Baina ba al dute halako zerbait egiteko adinako aurrekonturik? Eta filmak berak ematen al du halako zerbait egiteko? Bideo-jokoetan inork ez dizu halakorik eskatzen.

Zer beste lanetan zabiltza?

Dokumental askotan aritzen naiz, eta gero baditut nire proiektuak, neuk sortutakoak. Hemen, zeuk egin ezean, inork ez dizu deitzen. Nik ideiak izaten ditut eta saiatzeko naiz horiek aurrera eramaten. Uste dut artistak beti landu behar dituela bere proiektuak, eta sortzen jarraitu, inor bila etortzeko esperoan egon gabe. ■



Alberdi

EUSKAL ARTISAUTZA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka

☎ 943 371 545